

EKOZIR

EKONOMIA ZIRKULAR IRAUNKOR BAT BULTZATZEN DUEN ENPRESA

EKOZIR



SISI TALDEA:

- Alvaro Ruiz De Alegria
- Iñaki Aldalur
- Joseba Arratibel

AURKEZPENA

Dagoeneko konturatu gara gizakiak naturan egin duen hondamendia nahiko handia izan dela, eta hori aurrera pausu bat izan da, gaur arte. Aireak duen kutsadura, ozeanoak dituen plastiko hondakinak, kontrolik gabeko zuhaitzen mozketak, erregai fosilen gehiegizko ustiapena... Ezin ditugu hondamendi horiek goizetik gauera konpondu, baina, zer egin dezakegu guk natura zaintzeko? Galdera honi erantzuna eman nahian, EKOZIR enpresa sortu dugu, ekonomia eredu iraunkor bat bultzatuko duena, ekonomia zirkularraren lan egingo duena.

EKOZIR

Gaur egun, mundu mailan dugun ekonomia "erabili eta botatzekoa" da, hau da, zerbait erosi, erabili eta nazkatzean azkenik, bota egiten dugu, gehienetan erabili dugunaren baliozko

gauzak aprobetxatu gabe, horregatik gure behar horiek asetzeko beste bat sortzen dugu. Prozesu horretan baliabide naturalak erabiltzen ditugu eta natura ere kutsatzen dugu. Gainera, une horietan gu ez gara kontziente izaten, eta, ez diogu behar adina garrantzi ematen gai honi. Azken urteotan, mundu osoan 50 milioi tona zabor elektronikoa ekoizten dira urtero, hau da, pertsona bakoitzeko 7 kilogramo. 2017an, zabor elektronikoko urteko bolumena 65,4 milioi tonakoa izan zen, hau da, 200 New Yorkeko Empire State bezala edo 11 Gizako Piramide Handiak bezala.

Gu Iñaki Aldalur, Joseba Arratibel eta Alvaro Ruiz de Alegria gara, Urretxu Zumarraga ikastolako ikasleak eta beste ekonomia eredu bat posible dela erakutsi nahi dugu. Horretarako ekonomia zirkularraren parte bat izango gara, hau da, enpresei zerbitzu desberdin bat eskainiko diegu, beraien produktuen konponketa hain zuzen ere, produktu horiek berriro merkatuan jartzeko. Honi esker baliabide natural gutxiago erabiliko lituzkete eta kostuak aurrezteaz gain, arrakasta eta publizitate ona jasoko lukete beraietzat.